DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Eskabidea / Solicitud

Zuzeneko diru laguntza
Subvención directa

Urtea / Año

2026

Interesduna (Entitatearen datuak) / Persona interesada (datos de la Entidad)

1 abizena / Apellido 1	**2 abizena** / Apellido 2

Izena edo sozietatearen izena / Nombre o razón social	**NAN-AIZ-IFK** / DNI-NIE-CIF
Garabide Kultur Elkartea	G20890315

Helbidea / Domicilio	**PK** / CP
Larrin plaza, 1	20550

Udalerria / Municipio	**1. Telefonoa**	**2. Telefonoa**	**E-maila**
Aretxabaleta	943250397	688632433	garabide@garabide.eus

Ordezkaria (agiri honen aurkezlearen datuak) / Representante (Datos de la persona que presenta este documento)

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	**NAN-AIZ** / DNI-NIE
Maiteder Sasieta Murua	72743304P

Entitatean duen kargua / Cargo que ocupa en la Entidad
Elkarteko lankidetza teknikaria

12554n V

Harremanetarako datuak / Datos para envío de notificaciones

Helbidea / Domicilio	**PK** / CP
Larrin plaza, 1	20550

Udalerria / Municipio	**1. Telefonoa**	**2. Telefonoa**	**E-maila**
Aretxabaleta	943250397	688632433	garabide@garabide.eus

Eskabidearen datuak / Datos de la solicitud

Proiektu-jardueraren izena / Denominación del proyecto-actividad
Helduen irakaskuntzarako material sorkuntza eta irakasleen formazioa Meridako Udalean

Eskatzen den zenbatekoa / Importe que solicita
10.000 €

Banketxea dirulaguntza sartzeko / Entidad bancaria para ingreso de la subvención

Banketxea / Entidad bancaria	**Kontu korronteraren zk** / Nº cuenta
Laboral Kutxa	ES54 3035 0002 15 0020043856

Proiektuaren datuak / Datos del proyecto

Proiektu-jardueraren azalpena / Descripción del proyecto-actividad

Merida Yucatango penintsulako hiru estatuetako hiririk handi eta populatuena da. Erakarpen foku bizia da lurralde osoarentzat, biztanletan etengabe haziz doana. Alde horretatik, Meridan maiaren alde egin daitekeenak oihartzun zabala izan dezake hizkuntz komunitateetan. Ezin ahaztuko dugu, bide batez, maia hiztun gehien duen udalerria ere badela, aipatutako arrazoiengatik. Merida hiriaren izaera, esentzia maia begibistakoa bada ere, plazarik gaitzenetakoa da hizkuntzak har dezan arnas. Hala ere, azkenaldian zenbait aldeko faktoreren konfluentzia bizi dugu: Maiaren biziberritzeari ekarpen esanguratsua egin nahi dion udal ordezkaritza, 2024ko hauteskundeetan agintaritzari eutsi diona. Udalaren baitako Maiaren Institutuaren lana ere hedatzen ari da eta "maiaduntze" prozesua gidatzeko agente erreferentziazko bezala ageri da. Garabidek antolatutako Aditu ikastaro batean parte hartutako Marcos Pech da hizkuntza biziberritze arloaz arduratzen den institutuaren arduraduna, eta euskararen biziberritze prozesua oso presente dauka bere eguneroko lana antolatzerakoan.
Yúuyumen lana ere heldutasun fasean bizi dela esan dezakegu, penintsula osorako egiten ari den lanak hirian ere eragina baitauka, bertakoak izanik proiektua martxan jartzen ari diren kolaboratzaileetako asko. 2025Eko ekainean Meridako udaleko delegazioak Euskal Herrira eta bereziki Donostiara egindako bidaia oso argigarria izan zen zer eta nola lortu nahi den argitzeko eta ordutik Donostiako udalaren hizkuntza plana erreferente bilakatu da Meridako Udalean. 2025eko azaroan Garabide elkarteko teknikari eta Meridako proiektuaren arduradun den Maiteder Sasietak bertara eginiko bidaian Meridako udaleko teknikari eta zinegotziekin biltzeko aukera izan zuen, eta oso bizi dago Euskal Herrian jasotako eta pilatutako esperientziaren indarra. 2025eko ekainean udal ordezkariek Euskal Herrian egindako egonaldiak bide berriak ireki ditu udalean eta Maiaren Institutuaren lantaldea indartu ahal izan da horri esker. Momentu honetan Yucatango Maiaren biziberritzea puntu oso garrantzitsutzat daukate udalean, eta agintarien konplizitatea lortu da. Ekaineko bidaia horri esker Euskal Herrian baina batez ere Donostia bezalako hirietan egindako lana erreferentziatzat daukate.
2024an Udal agintaritza hartzerakoan aurkezturiko dokumentuan garbi ageri den moduan (ikus eranskina) maiaren biziberritzea zehar lerro moduan sartu da aipatzen diren arlo gehienetan. 2026rako erronka nagusietako bat helduen irakaskuntzan eragitea izango da. Duela urte batzuk hasi zen udala maia klaseak eskaintzen, baina euskara nola irakasten den ezagutzea gako izan da haien irakasteko modua ere moldatzeko. Modu komunikatiboan oinarritutako irakaskuntza plana diseinatzea eta martxan jartzea izango da 2026ko helburu nagusietako bat, jada martxan dauzkaten hainbat ekintza kulturalekin batera.
Horretarako, Euskal Herrian euskararen irakaskuntzan adituak direnekin formazio saioak aurreikusten dira egiten ari diren materiala berrikusi, moldatu eta modu komunikatiboan jarri ahal izateko. Gainera, materialaren inplementazioa eta praktikan jartzea ere ebaluatuko da.
Merida eta Donostiako hizkuntza sailetako arduradun eta teknikarien arteko konplizitatearekin jarraitu nahi da urte honetan ere, parekotasun handiak dituzten bi hiri hauen artean funtzionatzeko moduak partekatzen jarraitu ahal izateko.
Aurtengo urtea beraz formazio urtea izango da, helduen irakaskuntzan fokua jarriz prozesuari indarra emanez.

Zuzeneko diru laguntza justifikatzen duten arrazoi publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa
Razones de interés público, social, económico o humanitario que justifican la subvención directa

Mexikoko herri indigenek estatuko populazioaren %15a osatzen dute gutxi gorabehera, 17 milioi inguru biztanle. Komunitate hauentzat funtsezkoa da, hogeita batgarren mendeko erronka sozioekonomikoei aurre egin ahal izateko eta marjinazio arriskua gainditzeko, nortasun komunitarioari sendo eta gaurkotuari eustea.
Horretarako gako nagusietakoa da euren hizkuntza gutxituak biziberritzea eta hauspotzea. Oso da garrantzitsua babes politikoa duten egitasmoak gizarteratzea, jatorrizko hizkuntza gutxituen biziberritzeak, ariketa sozial gisa duen balioa jendarteratuz. Horregatik Meridakoa inspirazio iturri eta eredu da antzeko bultzaden bila dabilen hainbat komunitaterentzat eta zer esanik ez Yucatan osoko maientzat. Proiektu honekin batera ari da Yuyuum elkartea, 2024ko abuztuan penintsula osorako baliagarri izan nahi duen hizkuntza plan bat aurkeztu zuten eta jada ari dira inplementazioarekin eta penintsula osoko erreferentzialtasuna lortzen ari da pixkanaka. Meridak bere ibilbide pertsonalizatua egitea interesgarri eta estrategikotzat jo den arren, Penintsulako prozesu orokorraren parte ere bada eta hala sentitzen da. Eta hala ari da egiten, Penintsulako mugimenduarekin batera baina paraleloan proiektu garrantzitsua ari dira ernetzen.
Argudio berean biltzen da, plan honetatik abiatuta, Yucatango maientzako arnasgune sarea altxatzeak belaunaldi maia berrientzat duen garrantzia, nortasun komunitario sendoa baita globalizazio neoliberalak herri indigenei dakarkien bazterketa eta deserrotze mehatxuaren aurkako antidotorik eraginkorrena.
Horretaz gainera, Mexikoko hirurogeitaka hizkuntzen geroa, hein baten, hizkuntza gutxitu horietako "hiztuntsuenen" lehiakortasunari lotuta dago. Maiak edo nawatak, esaterako, lor ditzaketen garaipenak eta aurrerapenek motibazioa eta eredu baliagarria dakarkiete gainontzekoei. Ematen du maiaren kasua dela egokienetakoa bertan jatorrizko hizkuntzari prestigioa emango dion diskurtsoa taxutu eta zabal dadin. Diskurtso horrek, jakina, egokitzapenak egokitzapen, balioa eta eragina luke beste hainbat hizkuntzentzat. Ber gisan diskurtso horri eutsiko dion praxiak eta gazte eta guraso gazteen arteko praktika eraldatzaileak.

Horrenbestez, gure proiektuaren tokikotasunetik munduaren dibertsitatea babesteko eta sustatzeko aldarri globala dator.
Dagoeneko begi bistan dugu XXI. mendeak garapen orekatua eskatzen digula, hazkunde etengabea helburutzat ez duten ereduen praktika eta halako bizimoldeetarako trantsizioan jatorrizko kultura eta hizkuntzekiko atxikimenduak berebiziko garrantzia izango du. Beraz, jatorrizko hizkuntzetan kohesio sozialerako eta bazterkeria gainditzeko faktorea irakurri behar dugu. Eta haien aldeko lanean komunitatea modu inklusiboan trinkotu eta, era berean, mundura zabaltzeko ahalegina ulertarazi behar dugu.

Aurreikusitako ekintzak / Actividades previstas

I. ON LINE FORMAZIO SAIOAK: Euskararen irakaskuntza metodo komunikatiboan dago oinarrituta Euskal Herrian. Metodo horren gakoak zeintzuk diren eta Yucatango maiaren irakaskuntza prozesura nola molda daitezkeen sakonduko da hainbat formazio saiotan.
II. MATERIALAREN BERRIKUSPENA: Meridako Udaleko Maia Institutuak urteak daramatza maia klaseak eskaintzen eta azken urteotako euskal esperientziarekin haien materiala moldatu ahal izan dute. Material hori Euskal Herriko adituen esku jarriko dute hemengo prozesuaren arabera pilatutako esperientziaren arabera moldatu ahal izateko.
III. AHOLKULARITZA ETENGABEA: Garabidek koordinatuko duena, bai Institutu Maiako eragileei, bai udaleko langile eta ordezkariei eta baita bestelako sustatzaileei ere. Etengabeko harremana mantentzen da Garabide eta eragileen artean, horrek planaren garapena erraztuz.

Oharrak / Observaciones

1> Proiektuak eragile desberdinen artikulazioa du zutabe nagusi: Donostiako udala, Garabide, Meridako udala, Maiaren Institutua eta Yúuyum gizarte erakundeak hartuko dute parte egitasmoan. Proiektua martxan jarri ahal izateko hiriko beste eragile zibil batzuen laguntza ere beharko da.
2> Berebiziko garrantzia du jatorrizko hizkuntzen biziberritzea giro urbanoetan sustatzeak. Ez dira ugariak halako esperientziak eta behar-beharrezko ditugu, besteak beste, hizkuntzak biziberritzearen ezagutzan sakontzeko eta indarberritze-mekanismoen eraginkortasuna probatzeko. Horretarako aktibista hiritarren inplikazioa berebizikoa izango da.
3> Euskal Herriak, herri bezala, mende erditik gorako esperientzia du bere hizkuntzaren normalizazioaz. Bidezkoa da, munduko hizkuntza gehienen egoera zaurgarria egiaztatuta, gure esperientzia munduarekin partekatzea. Hori da proiektu honen bidez gauzatzen ari garena. Donostiako udalaren eredua zabaldu nahi dugu, hizkuntza-lankidetzaren sarea sendo eta iraunkor zabal dadin.
4> Euskal Herrian dauden esperientziak ezinbesteko eredu izango dira Meridakoak inplementatzerako garaian. Oso presente egongo dira Donostian eta Euskal Herrian batez ere auzolanean garatu diren esperientziak.

Iraupena / Duración	**Hasiera data** / Fecha inicio	**Bukaera data** / Fecha fin
12 hilabete	2026/01/01	2026/12/31

Aurrekontuaren datuak / Datos del presupuesto

Gastuak (azalpena) Gastos (concepto)	**Zenbatekoa (BEZ barne)** Importe (IVA incluido)
Formazio saioak: Euskal Herriko aditua	520 €
Materialaren berriskuspena: Euskal Herriko aditua	520 €
Materialaren inplementazioa: inprenta gastuak	2.000 €
Entengabeko aholkularitza: Euskal Herriko aditua	8.069,48
Garabideko teknikariaren kostua (2 hilabeteko jarduna)	

Gastuak, guztira Total gastos	**11.109,48 €**

Sarrerak (sorburua) Ingresos (procedencia)	Zenbatekoa (BEZ barne) Importe (IVA incluido)
Donostiako Udala	10.000 €
Erakunde eskatzailearen ekarpena	1.109,48 €

Sarrerak, guztira Total ingresos	11.109,48 €

Emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspuntua noraino kontuan hartu den proiektuan
Grado de incorporación de la perspectiva de igualdad de mujeres y hombres en el proyecto

Proiektuarekin zerikusia duten pertsonen banaketa sexoaren arabera:
Distribución por sexo de las personas relacionadas con el proyecto:

	Emakumezkoak Mujeres	Gizonezkoak Hombres	Guztira Total
Jardueraren onuradun izan diren pertsonak Personas que se han beneficiado de la actividad	515.760	479.369	995.129
Jarduerarako kontratatuak izan diren pertsonak Personas que se han contratado para la actividad	0	0	0
Jardueran parte hartu duten boluntarioak Personal voluntario que ha participado en la actividad	20	20	40

Kontuan hartu izan al da proiektuan emakumeek jasaten duten desberdintasun soziala? Horri aurre egiteko neurririk hartu al da? Baiezkoan, zehaztu zein neurri mota hartu den.
¿Se ha tenido en cuenta en el proyecto la desigualdad social que afecta a las mujeres y medidas para afrontarla? En caso afirmativo indicar las medidas tomadas

Hasierako diagnostikoan / En el diagnóstico de partida	☒ **Bai** / Sí	☐ **Ez** / No

Neurriak / Medidas

Emakumeen testigantzak jaso dira diagnostiko soziolinguistikoa kualitatiboki zein kuantitatiboki osatzeko. Baita, aurreko urteko balorazioa eginda, datuok gaurkotzeko.

Proiektuaren helburuetan / En los objetivos del proyecto	☒ Bai / Sí	☐ Ez / No

Neurriak / Medidas

Emakumeak hizkuntzen biziberritzean duen garrantzia aski ezaguna da maia hiztunen komunitatean ere, figura hori izanik hizkuntza baten transmisioa mantentzeko gakoetako bat. Hori dela eta emakumearen presentzia asko zaintzen da eta zainduko da proiektuan, eta helburuetako bat emakumeak ahalduntzea izango da daukaten posizio klabe horretan euren paperean ondo joka dezaten.

Proposatutako jardueretan / En las actividades propuestas	☒ Bai / Sí	☐ Ez / No

Neurriak / Medidas

Jarduera guztietan emakumeak bertaratu ahal izateko erraztasunak jarriko dira, bai ordutegi aldetik eta baita irisgarritasun aldetik ere. Horretaz gain beharko lukeenarentzako zaintza zerbitzua jarriko da emakumeek jardueretan parte hartzeko erraztasuna izan dezaten.

Ebaluazioan / En la evaluación	☒ Bai / Sí	☐ Ez / No

Neurriak / Medidas

Garabidek, indarrean duen Genero Planari jarraiki, bere lantalde eta organoetan egiten dituen ebaluazioetan beti dago presente proiektu bakoitzak emakumeen ahalduntzean izan duen inpaktua baloratzearena.

Aurreikusi al da inolako neurririk proiektuan parte hartzen duten pertsonen bizitza pertsonal, familiarra eta laborala jarduerarekin uztartzeko? / ¿Se prevé alguna medida para facilitar la conciliación de la vida personal, familiar y laboral de las personas participantes en el proyecto ?

☒ Bai / Sí ☐ Ez / No

Baiezkoan, zehaztu zein neurri mota hartu den: / En caso afirmativo, indicar las medidas tomadas:

Hizkuntza biziberritzean, Euskal Herrian bizi dugun legez, funtsezkoa da, egitasmoen iraunkortasunerako lan boluntarioaren eta konpentsatutakoaren oreka, alegia, bietan, baina batez ere ekarpen boluntarioa dagien jendearengan kontziliazio familiarrerako neurriek presente izan behar dute. Egiari zor, badugu zer ikasi eta non sakondu ildo horretan, baina bidea argi azaldu da gure hausnarketa estrategikoetan eta, gainera, lotura zuzena du genero ikuspegiaren aplikazioarekin. Bidea urratzen hasita gaude eta bileretarako edo ekitaldietarako ordutegirik egokienak aukeratzeko ahaleginetik haratago haurtzaindegi zerbitzua ere eskaini da hala beharko balitz, zaintza lanak biziberritze ardurekin bateragarri egite aldera.

Hizkuntza ofizialen erabileraren aurreikuspena (1) / Previsión del uso de las lenguas oficiales (1)

Jarduera mota Tipo de actividad	☐ Haurrentzat Infantil	☐ Gazteentzat Juvenil	☒ Orokorra General

	Idatzizko erabilera / Utilización escrita				Ahozko erabilera / Utilización oral		
	Kartelak Carteles	Esku orriak Folletos	Publizitatea Publicidad	Sarrerak Entradas	Aurkezpena Presentación	Megafonia Megafonía	Publizitatea Publicidad
Euskaraz En euskera	☒	☒	☒	☒	☒	☒	☒
Euskara nagusiki Principalmente en euskera	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
Elebiduna Bilingüe	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

	Aukeran / Opcional		
	Jardueraren hizkuntza Lengua de la actividad	Proiektua Proyecto	Web gunea Página web
Euskaraz edo Euskara nagusiki Todo o casi todo en euskera	☒	☒	☒
Elebiduna Bilingüe	☐	☐	☐

Gaztelaniaz edo Gaztelania nagusiki Todo o casi todo en castellano	☐	☐	☐

Azalpenak / Observaciones

(1) Oharra / Aviso

Araua betetzen laguntzeko, Euskara Zerbitzuak hizkuntza aholkularitza zerbitzua eskaintzen du.
Para el cumplimiento de la norma, el Servicio de Euskera ofrece servicio de asesoría lingüística

Beste laguntza eskabideen aitorpena / Declaración sobre otras solicitudes de ayuda

Jarduera hauetarako eskatutako edo jasotako beste laguntzak Otras ayudas solicitadas o recibidas para estas actividades	**Jasotako zenbatekoa** Importe recibido

x	**Ez dugu jaso edo eskatu beste inongo laguntzarik** No hemos recibido ni solicitado ninguna otra ayuda

BEZ-araubidea (bat besterik ez aukeratu) / Régimen del IVA (señalar solo una)

Nire erantzukizunpean adierazten dut, BEZari dagokionez, nik ordezkatzen dudan entitateak:
Declaro bajo mi responsabilidad, respecto al IVA, que la entidad a la que represento:

☒	**BAI, bere gain hartzen duela horren kenketa ezin duelako egin.** SI, asume el coste del IVA al no poder deducirlo.
☐	**EZ, ez duela bere gain hartzen horren kenketa egin dezakeelako** NO, no asume el coste del IVA al poder deducirlo.
☐	**Partzialki hartzen du bere gain % __ ko kenkaria du.** Lo asume parcialmente, deduce el __ %

Beste adierazpen batzuk / Otra declaraciones

Nire erantzukizunpean adierazten dut nik ordezkatzen dudan entitatea ez dela dirulaguntzak lortzeko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan aipatzen diren debeku arrazoietan sartzen.

Declaro bajo mi responsabilidad que la entidad a la que represento no está incursa en los supuestos de prohibición para la obtención de subvenciones a las que se refiere el artículo 13 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

Adierazten dut ☒ Declaro

Nire erantzukizunpean adierazten dut eskaera honetako datuak egiazkoak direla, eta jarduera honetarako eskatutako edo/eta jasotako beste dirulaguntza batzuei buruzkoak ere hala direla.

Declaro bajo mi responsabilidad que los datos incluidos en esta solicitud son ciertos, así como los relativos a otras ayudas solicitadas o recibidas para esta actividad.

Adierazten dut ☒ Declaro

Egiazta daitekeen dokumentazioa / Documentación verificable

Interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.

Las personas interesadas tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración (Artículo 28 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las

artikulua). Udalak/Mendeko erakundeak informazio hau kontsultatu behar du: • Ordainketak egunean izatea Udalarekin • Zerga ordainkizunak egunean izatea (Euskal Foru Aldundiak) • Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea Donostiako Udalak/Mendeko erakundeak edozein unetan kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu agiri horiek espedientea tramitatzen den bitartean, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanda. Kasu horretan, egiaztatu nahi ez den dokumentazioa aurkeztu beharko da. ☐ AURKA EGITEN DUT Adierazi zein kontsult(ar)en aurka egiten duzun, eta aurka egiteko arrazoia(k) zein d(ir)en:_____	Administraciones Públicas). La documentación a consultar por el Ayuntamiento/Ente dependiente es la siguiente: • Estar al corriente del pago con el Ayuntamiento • Estar al corriente de las obligaciones tributarias (Haciendas Forales Vascas) • Estar al corriente del pago con la Seguridad Social El Ayuntamiento de San Sebastián/Ente dependiente podrá consultar o recabar dichos documentos en cualquier momento de la tramitación del expediente salvo que la persona interesada se oponga a ello, de manera motivada. En ese caso, deberá aportar la documentación a cuya comprobación se opone. ☐ ME OPONGO Indique la(s) consulta(s) a la(s) que se opone y el motivo de oposición:_____

Tokia eta eguna / Lugar y fecha: Aretxabaletan, 2026ko apirilaren 2an

Lehendakariaren sinadura / Firma de la persona que ostenta la presidencia

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba
NAN-AIZ / DNI-NIE	16.222.346-D

Erantsi behar den dokumentazioa / Documentación a presentar

• Elkartearen arduradunaren edo bere ordezkoaren NAN. • Zergak Euskadin ordaintzen ez baditu, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak erantsi beharko ditu. • Dokumentazio osagarria	• DNI de la persona responsable o representante de la entidad • En caso de no tributar en el País Vasco, deberá adjuntar certificados de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias. • Documentación complementaria

Diru laguntza jasotzearekin batera hartzen diren konpromisoak
Compromisos que se adquieren al obtener la subvención

• Egitasmotik etorritako erantzukizunak bere gain hartzea. • Behar diren baimenak lortzea. • Egitasmoa garatzen ari dela gertatzen diren gorabehera guztiak Udalari jakinaraztea, gertatu bezain laster. • Dirua gastatzen ez bada, diru laguntza itzultzea.	• Asumir las responsabilidades que se deriven del programa. • Obtener todas las autorizaciones necesarias. • Comunicar al Ayuntamiento cualquier eventualidad en el desarrollo del programa, en el momento en que se produzca. • Devolver la subvención si el gasto no se produce.

• Helburuak funtsean aldatuz gero, diru laguntza itzultzea. • Udalak ezarritako betekizun guztiei eta bete beharreko arauei men egitea.	• Devolver la subvención si se comprueba una modificación sustancial de los fines para los que se concedió. • Cumplir todos los requisitos que el Ayuntamiento indique y la normativa aplicable.

Datu babesari buruzko informazioa Información adicional protección de datos	
Arduraduna Responsable	**Donostiako Udala** Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián
Helburua Finalidad	**Udal-dirulaguntzak emateko informazio pertsonala kudeatzea.** Gestión de la información personal para la concesión de subvenciones municipales.
Legitimazioa Legitimación	**DBEOren 6.1 e) artikulua Interes publikoko misio bat betetzea eta DBEOren 9.2.g) artikulua** Artículo 6.1 e) RGPD Cumplimiento de una misión de interés público y Artículo 9.2.g) RGPD interés público esencial
Hartzaileak Personas destinatarias	**Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legezko betebeharra edo berariazko adostasuna izan ezean.** No se cederán datos a terceros, salvo obligación legal o consentimiento expreso.
Eskubideak Derechos	**Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian zehaztutako beste eskubide batzuk ere.** Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos detallados en la informacón adicional
Informazio gehigarria Información adicional	**Gure webgunean kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza** Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: https://www.donostia.eus/info/udalinfo/Tramites.nsf/fwBabesa?ReadForm&cod=DAMU&id=D&idioma=cas